

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 17a

ITZARRIK, EUSKADIN GEHIEN INBERTITZEN DUTEN BGAEEN ARTEAN, %4,82KO ERRENTAGARRITASUNAREKIN ITXI DU 2016

- **134 milioi euro inbertitzen ditu Euskadin, bere guztizko ondarearen %22.**
- **Bazkideen borondatezko ekarpenek eta beste BGAE batzuetatik izandako intsuldaketek %50,3ko eta %26,9ko hazkundera izan dute, hurrenez hurren.**
- **Urteko batez besteko errentagarritasuna, Itzarri sortu zenetik, %4,33 UTBkoa da, KPI %2,61 gaindituz.**

Gaur, asteazkenean, maiatzaren 17an, Gasteizen aurkeztu du Itzarri BGAEk 2016ko kudeaketa-balantzea bere gobernu-organo gorenaren aurrean, Ohiko Batzar Nagusian, zeinak onetsi egin duen aurkeztutako txostena. Aurreko ekitaldiak berretsi egin du Itzarriren jardunak gizartearen aldetik jasotzen duen babes, bazkideen borondatezko ekarpenek nabarmen hazten jarraitu baitute. Babes horren ondorioz joera bat sendotu da: bazkide guztiek Erakundearen jarria duten gero eta konfiantza handiagoa. 2016an, bai ondareak bai errentagarritasunak, berriro gainditu dituzte aurreko ekitaldian izandakoak. Gainera, Euskadin gehien inbertitzen duten BGAEen artean kokatu dute Itzarri, 134 milioi euroko inbertsioarekin.

Euskadiko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko 90.909 langile biltzen ditu gaur egun Itzarri BGAEk. 2016ko abenduaren 31n, 607 milioi eurokoa da bere ondarea. Jardunean bete dituen hamaika urteetan **urteko batez besteko %4,33ko errentagarritasuna** lortu du Itzarrik, **KPI %2,61ean gaindituz.**

Orain, Euskadin inbertsio handiena egin duten Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetako bat da, 134 milioi eurotik gorakoa izanik, guztizko ondarearen %22,07, alegia.

INBERTSIOAK EUSKADIN 2016/12/31n	Mila euro	%
EUSKO JAURLARITZA	52.617	%8,66
BANKOA	17.565	%2,89
CIE AUTOMOTIVE	12.220	%2,01
KUTXABANK	11.319	%1,86
TUBACEX	11.193	%1,84
IBERDROLA	5.196	%0,86
LABORAL KUTXA	5.003	%0,82
TUBOS REUNIDOS	2.336	%0,38
MASMOVIL IBERCOM	2.699	%0,44
CAF	2.681	%0,44
BBVA	1.901	%0,31
GLOBAL DOMINION ACCESS SA	1.142	%0,19
TEKNIA	1.044	%0,17
GESTAMP	629	%0,10
EUSKATEL	584	%0,10
NBI BEARINGS EUROPE, S.A.	499	%0,08
IKFen ZEHARKAKO PARTAIDETZA	5.402	%0,89
GUZTIZKOA	134.029	%22,07



Administrazio-gastu doituak izan ditu Itzarrik, ondarearen **%0,39** (sektorean baxuenetakoak). Bazkideen borondatezko ekarpenek goranzko joeran jarraitu dute, **%50,37 gehituz**. Gainera, beste IKFetatik Itzarriri egin zaizkion intsuldaketak **%26,94** gehitu dira 2016an zehar.


ITZARRI IKFREN ERRENTAGARRITASUN HISTORIKOAK

2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
%3,41	%5,23	%3,75	%-4,44	%5,55	%3,66	%-3,26	%11,17	%11,90	%6,92	%4,15	%4,82

2016 ekitaldian ordaindutako prestazioen guztizkoak 10,8 milioi eurora egin du gora (%1,8 bere ondarearen gainean): erretiroagatik, 8,9 milioi euro; desgaitasunagatik, 1,2 milioi euro; heriotzagatik, 633 mila euro; eta, langabeziagatik, 149 mila euro.

ONDAREAREN EBOLUZIO HISTORIKOA

Mila euro



Vitoria-Gasteiz, 17 de mayo de 2017

ITZARRI, ENTRE LAS EPSVS QUE MÁS INVIERTEN EN EUSKADI, CIERRA 2016 CON UNA RENTABILIDAD DEL 4,82%

- **Invierte 134 millones de euros en Euskadi, el 22% de su patrimonio total.**
- **Las aportaciones voluntarias de los socios/as y los traspasos desde otras EPSV han experimentado crecimientos del 50,3% y 26,9%, respectivamente.**
- **La rentabilidad media anual, desde la creación de Itzarri, es del 4,33% T.A.E., superando en 2,61% al IPC.**

Itzarri EPSV ha presentado hoy, miércoles, 17 de mayo, en Vitoria-Gasteiz el balance de gestión del año 2016 ante su máximo órgano de gobierno, la Asamblea General Ordinaria, que ha aprobado el informe presentado. El pasado curso ha significado para Itzarri la confirmación del respaldo social a su actividad en tanto las aportaciones voluntarias de los socios/as han seguido creciendo de manera notable. Dicho respaldo se traduce en la consolidación de una tendencia: la creciente confianza de todos los socios/as en la Entidad. En 2016 tanto el patrimonio como la rentabilidad han superado nuevamente a las registradas en el ejercicio anterior. Asimismo, ha situado a Itzarri como una de las EPSVs a la cabeza de la inversión en Euskadi, alcanzando los 134 millones de euros.

Itzarri EPSV integra actualmente a 90.909 trabajadores de la Administración General e Institucional de Euskadi. A 31 de diciembre del año 2016 su patrimonio es de 607 millones de euros. En sus once años de trayectoria Itzarri ha logrado una **rentabilidad media anual del 4,33%, superando en más de 2,61% al IPC.**

En estos momentos es una de las Entidades de Previsión Social Voluntaria con mayor inversión en Euskadi, superando los 134 millones de euros, un 22,07% del patrimonio total.

INVERSIONES EN EUSKADI A 31/12/2016	Miles de euros	%
GOBIERNO VASCO	52.617	8,66%
BANKOA	17.565	2,89%
CIE AUTOMOTIVE	12.220	2,01%
KUTXABANK	11.319	1,86%
TUBACEX	11.193	1,84%
IBERDROLA	5.196	0,86%
LABORAL KUTXA	5.003	0,82%
TUBOS REUNIDOS	2.336	0,38%
MASMOVIL IBERCOM	2.699	0,44%
CAF	2.681	0,44%
BBVA	1.901	0,31%
GLOBAL DOMINION ACCESS SA	1.142	0,19%
TEKNIA	1.044	0,17%
GESTAMP	629	0,10%
EUSKATEL	584	0,10%
NBI BEARINGS EUROPE, S.A.	499	0,08%
PARTICIPACION INDIRECTA IIC'S	5.402	0,89%
TOTAL	134.029	22,07%

Itzarri ha mantenido unos gastos de administración ajustados, un **0,39%** del patrimonio (de los más bajos del sector). Las aportaciones voluntarias de los socios/as han continuado con su tendencia creciente, aumentando un **50,37%**. Asimismo, los traspasos procedentes de otras EPSV a Itzarri han crecido un **26,94%** durante el 2016.

RENTABILIDADES HISTÓRICAS ITZARRI EPSV

2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
3,41%	5,23%	3,75%	-4,44%	5,55%	3,66%	-3,26%	11,17%	11,90%	6,92%	4,15%	4,82%

El total de prestaciones abonadas durante el ejercicio 2016 ha ascendido a 10,8 millones de euros (1,8% sobre el patrimonio): por jubilación, 8,9 millones de euros; por incapacidad, 1,2 millones de euros; por fallecimiento, 633 mil euros; y, por desempleo 149 mil euros.

EVOLUCIÓN HISTÓRICA DEL PATRIMONIO

Miles de euros

